

APIRILAK 7 | OSASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Apirilaren 7a da gaur, Osasunaren Nazioarteko Eguna eta Sare Herritarrak espetxean larriki gaixo diren pertsonak gogora ekarri nahi ditu. Osasunak eta osasungintzak garrantzi berezia hartu dute azken urte hauetan eta errealitate berri honek osasun baldintzek eta gaitzen artatzeak duen garrantzia erakutsi digu. Saretik preso daudenen osasuna ere erdigunera ekarri nahi dugu.

Euskal presoek ezartzen zaien salbuespenezko espetxe-politikak, hau da, urruntzeak urtetan sortutako bakardadeak, zigorraren luzapena edota ia bizi osoko zigor luzeen ezarpenak eta hirugarren gradura igarotzeko edota baimenak lortzeko ezintasunak eragin zuzena dute preso dagoen pertsonaren osasunean, eta ezegonkortasuna, arazo psikologikoak, antsietatea, harremanak garatzeko arazoak... sortzen dituzte. Gaur egun, oraindik 17 dira gaixotasun larriak dituzten euskal presoak. Espetxe politikaren baitan egoera aldatzen hasi den arren, oraindik ere, preso askok egoera hauei aurre egin behar diete, ahaztu gabe, gehiengoak orain arte betetako zigorraren zatia lehen graduan edota isolamenduan igaro duela.

Gaixo diren presoek kasuan gainera, oraindik ere salbuespena da preso horiek jasaten duten neurria, gaixotasunari aurre egiteko aukerak murriztuz, gertuko babesa, bizi-baldintza duinak edota konfiantzazko medikuen jarraipena ez izateak eragin zuzena baitu. Lege arruntaren aplikazioak, larriki gaixo diren presoak etxean egotea ahalbidetuko luke, euren gaitza era ahalik eta egokienean artatuz, ahal dela, berau gainditzeko helburuarekin.

Salbuespen legedia ez ezik ordea, espetxeetako osasun-baldintza kaxkarrak ere ezbaian jartzeko eguna da gaurkoa. Espetxeak berak instituzio gisa, hala nola zentroak, profesional eta baliabide faltak osasunean eragin negatiboa izaten dute. Espetxeek ez dute behar

bezalako osasun-zerbitzua emateko aukerarik eskaintzen.

Osasuna pertsona guztiei dagokien eskubidea da, baita preso diren pertsonentzat ere. Ezin dugu onartu segurtasun-politiken aitzakiaren pean presoan oinarritzko eskubideak zapaltzen dituen politikarik. Preso orok konfiantzazko mediku edo psikologo baten laguntza jasotzeko eskubidea du.

Nahiz eta azkenaldian, larriki gaixo dauden preso batzuekin pauso garrantzitsuak eman diren, politika honen ondorio larri eta dramatikoaren lekukoak gara espetxean bizia galdu duten presoan zerrendak gora egiten baitu etengabe. Espetxe politikak eta espetxeak, bertan preso diren pertsonen biziaren ardura dute beregain. Eta arduraz jokatzeari dagokionez, heriotza ate joka izan aurretik.

Urte luzeetako aldarri den arren, gaur, Osasunaren Nazioarteko Eguna dela baliatuz, salbuespenezko espetxe politika guztiz amaitzearen garrantzia azpimarratzera gatoz eta larriki gaixo diren presoak etxean egon behar dutela errepikatzera. Espetxea ere gure gizartearen zati bat da. Denoi dagokigu egoera hau aldatzea eta arduraz jokatu dadin eskatzea; bai kalean, bai eta instituzioetan ere. Elkarbizitzarako, bakerako eta etxerako bidea elkarrekin egin dezagun.

7 de ABRIL | DÍA INTERNACIONAL DE LA SALUD

Hoy es el 7 de abril, Día Internacional de la Salud y La Red Ciudadana Sare quiere recordar a las personas gravemente enfermas en prisión. La salud y la sanidad han cobrado especial relevancia en los últimos años y esta nueva realidad nos ha mostrado la importancia de las condiciones sanitarias y de atención a las dolencias. Durante el día de hoy se hablará de los quehaceres aún pendientes en materia de salud, que no serán pocos. Nosotros también queremos traer al centro la salud de las personas presas.

La política penitenciaria excepcional que se aplica a los y las presas vascas, es decir, la soledad que ha supuesto tantos años de alejamiento y aislamiento, la prolongación de la pena o la imposición de penas similares a la cadena perpetua y la imposibilidad de pasar a tercer grado o de obtener permisos, influyen directamente en la salud de la persona presa y generan inestabilidad, problemas psicológicos, ansiedad, problemas para el desarrollo de las relaciones... En este momento son 17 los y las presas vascas con enfermedades graves. A pesar de que la situación ha comenzado a cambiar en el seno de la política penitenciaria, todavía hay muchos presos/as que se enfrentan a esta realidad, sin olvidar que la mayoría ha pasado gran parte de la pena cumplida hasta ahora en primer grado o en aislamiento.

En el caso de los y las presas enfermas, la medida sigue siendo excepcional, reduciendo las posibilidades de hacer frente a la enfermedad, ya que la falta de protección de los allegados, de condiciones de vida dignas o de seguimiento de los médicos de confianza influye directamente. La aplicación de la ley ordinaria permitiría que los y las presas gravemente enfermas permanecieran en casa, atendiendo su dolencia de la manera más adecuada posible, a ser posible con el objetivo de superarla.

Sin embargo, hoy es un día para cuestionar no sólo la legislación de excepción, sino también las pésimas condiciones sanitarias de las prisiones. La propia prisión como institución, como los centros, la falta de profesionales y recursos repercuten negativamente en la salud de las personas presas. Los centros penitenciarios no ofrecen la posibilidad de

prestar un servicio sanitario adecuado.

La salud es un derecho que atañe a todas las personas, incluidas las personas presas. No podemos aceptar políticas que bajo el pretexto de políticas de seguridad pisoteen los derechos fundamentales de los y las presas. Todo/a preso/a tiene derecho a la asistencia de un médico o psicólogo de confianza.

Aunque últimamente se han dado pasos importantes con algunos presos gravemente enfermos, somos testigos de la consecuencia más grave y dramática de esta política porque la lista de las personas presas que han perdido la vida en prisión ha aumentado en los últimos años. La política penitenciaria y la prisión son responsables de la vida de las personas presas. Y les corresponde actuar con diligencia antes de que la enfermedad sea irreversible.

Esta reivindicación no es nueva. Sare lleva reivindicando el derecho a la salud desde sus inicios. Hoy, aprovechando la celebración del Día Internacional de la Salud, venimos a insistir en la importancia de acabar con la política penitenciaria de excepción y a reiterar que los y las presas gravemente enfermas deben estar en casa. La cárcel también es parte de nuestra sociedad. A todos y todas nos corresponde cambiar esta situación y exigir que se actúe con responsabilidad, tanto en la calle como en las instituciones. Hagamos juntos el camino de la convivencia, de la paz, y del regreso a casa.